

# Poesía, ipuinak eta nobela beltza Ereinen ekarpen hirukoitzean

Amaia Iturbideren, Juan Modesto Arrietaren eta Eneko Aizpuruaren lanak eman ditu argitara, eskarmentua eta estraineko lanak elkartzuz

:: NEREA AZURMENDI

**DONOSTIA.** Era guztietako irakurleen nahiak asebeten nahirik edo, estilo oso desberdineko hiru liburu aurkeztu zituen atzo Erein argitaletxeak: Amaia Iturbideren 'Eszenatokieta'ko aztarnak hasten direnean' poema liburua; Juan Modesto Arrietaren 'Izen bereziak' ipuin bilduma eta Eneko Aizpuruaren 'Errauts' nobela beltza. Eskarmentu handiko idazle bat, seigarren liburua dakarren Iturbide (Bilbo, 1961) eta, aurretik hainbat sari irakazitakoak izan arren, estreinako lanarekin datozen Arrieta (Zarautz, 1949) eta Aizpuru (Lazkao, 1976).

**Sinboloen garrantzia.** Jon Kortazarren hitzetan, «intimismoa, simbolismoa eta esperientzia» dira Amaia Iturbideren poesiaren zutabe nagusiak. 1986.ean lehen poema liburua argitaratu zuen eta, margolari ere baden Iturbidek (berea da azken honen azaleko akuarela) ibilbide sendoa egin du poesiagintzan. 'Eszenatokieta'ko aztarnak hasten direnean' honetan, izenbururako hautatu dituen hitzek adierazten duten moduan, «antzerkirako joera» eta «bilaketa zantuak» ageri dira, nahiz eta, atzo egin zuen aurkezpen ederaren arabera, askotarikoa izan gaie eta erreferentziei dagokienez zazpi ataletan erakitako liburua. Picasso, Gris, Mikel Laboa, mina («minik gabe ez dago poesiarik»), Xabier Lete, heriotza, euskal mitologia... Aztarnak ugariak dira ipuin liburuetan eta itzulpenak ere ekarri dizkigun Amaia Iturbideren poema-bildumaren norako nagusiak zein izan daitezkeen



Egileak. Juan Modesto Arrieta, Eneko Aizpuru eta Amaia Iturbide. :: GUILLERMO RIVAS

antzemateko. «Poemategi osoari gainbegirata, simbolismoaren garrantzia» nabarmendu zuen egileak, irakurleari aurreratuz liburuaren 166 orrialdeetan maiz aurkituko dituela bere sinbolorik kutunenak: ura, sua, mendiak, katuak, hontzak...

**Izena eta izana.** Etxetik kanpo, Modesto Arrieta izan da beti erretiroa hartu arte Donostiako Irakasle Eskolan irakasle izandako matematikaria. Etxean, Juan Modesto. Horixe da hain zuzen argitara eman duen aurreneko liburuaren azalera, idazle izateko alegia, aukeratu duena. Zeren eta izenak garrantzitsuak baitira. Ez dio alferrik jarri 'Izen bereziak' izenburua hamaika ipuinez osatutako bildumari. Liburuaz mintzatzen hasi aurretik aitortu zuen Arrietak «idazle atipikoa» dela: 50 urte zituela hasi zen idazten eta, ia aldi berean, sariak irabazten (bes-

teak beste, Donostia Hiria Kutxa preziatua, 2005ean 'Adelino Sousa' ipuinarekin lortu zuena, aurreko urtean sari bera Bertol Arrieta semeak eskuratu ondoren). Sariak ekarri zioten onespak animaturik edo, «idaztera engantxatu zen» eta, astia duen honetan, ez dauka uzteko asmorik. Ipuinak gogoko dituzten irakurleentzat mesede, atseginez irakurtzen baitira «betiko gaiak» lantzen dituzten lanak: «Amodioa, desamodioa, lapurretara bat eta putakumeren istorio batzuk ere». Bere bizitzari – eta izenaren garrantziari – lotutako bi atal ere baditu liburua: 'Hitzaurrea: Nire izena' eta 'Hitz-atzea: Aita eta semea'.

**Uzta gorria Goierri.** Eneko Aizpuru itzultzaile lazkaotarraren 'Errauts' eleberrian ere izango da, bere aurreneko liburuaren aurkezpenean aurreratutako arabere-

ra, putakumeren bat... Irakurle beltza nobela beltza du gogoko, genero horixe aukeratu du idazle gisara estreinatzeke, eta toki egokia aurkitu du horretarako: Ereinek nobela beltzari eskaintzen dion Uzta Gorria saila. Aizpuru ez da urrun joan eszenatoki bila, jaioteritit gertu gelditu baita, Goierri inguruan. Hain zuzen ere, magrebat bat azalduko da labankadaka hilda, non eta Lazkaon. Etorrinen egoeraz arduratzen den erakunde batek kazetari batu eskatuko dio hilketa argitu dezan, eleberriko protagonista den Mikel Egileorri. Lanari ekin eta berehala ikusiko du ikerlari bilakaturako kazetariak interes zikinekin eta ustelkeriarekin topo egiteko ez dagoela Estatu Batuetara edo leku exotikoetara joan beharrik. Hurbileko paraje ezagunetan ere aurki daitezke horrelakoak, bilatzen hasiz gero.

## Urrezko Biblioteka, literatura unibertsaleko ale hautatu eta eguneratuak

:: N. AZURMENDI

**DONOSTIA.** 1989an Eusko Jaur-laritzako Kultura Sailak eta EIZIE Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpretation Elkarteak abian jarri zuten Literatura Unibertsala bildumak 150tik gora klasiko ekarri ditu euskara. Lehena 1990ean argitaratu zen. Aurten, ekimenaren hirugarren aroa abian jartzeaz gain, zortzi lan esleitu dira, eta proiektuari adar berri bat sortu zaio: 'Urrezko biblioteka'.

Horren baitan, eskurazain edota eguneratu beharrean dauden hogeitun berargitalpena adostu dute EIZIEK eta Kultura Sailak. Edizioaz Elkar arduratuko da eta urtean lauzpabost lan berreskuratzea da asmoa. EIZIEko buru Bakartxo Arrizabalagak atzo aurreneki bi aleen aurkezpenean azaldu zuenez, «Literatura Unibertsala itzultzaile denentzat eta euskararentzat proba izan da, eta hogeitun urte hauetan euskarak egin duen bide luzeak eskatzen zuen zenbait lan eguneratzeak. Eguneratzeak, besteak beste, itxura berritua eta jatorrizko baina erakargarriagoa ekarri du.

Hurrengo aleak berehala heduko direla aurreratu, Katherine Mansfielden 'Lorategiko festa' ipuin bilduma eta Eugène Ionescoren 'Emakume abeslari burusola' antzelana aurkeztu zituzten atzo. Zeelanda Berriko idazlearen liurua, ingelesez 1922an argitaratua eta 1998an euskaratua, orduko itzulpenaz eta oraingo eguneratzeaz arduratu den Anton Garikanok aurkeztu zuen. Ionescoren 'antipieza', absurduen antzerkiaren mugarria, Ion Muñozek itzultzaile argitaratu zen 2001. ean, eta Muñozek berak eman dio errepaso. Atzo aurkezpen bikainak egin zituzten itzultzaileek dira, halaber, liburuak aberastan dituzten hitzaurte argigarriak.

## «Estamos sorprendidos al ver juntos nuestros propios títeres»

El coordinador de la presencia Suiza en el Titirijai de Tolosa se muestra impactado por el festival y el Topic

:: ROBERTO KORTA

**SAN SEBASTIÁN.** Pierre Alain Rolle dirige una compañía de títeres en Suiza, pero no está en el Titirijai de Tolosa para mostrar su trabajo, sino como coordinador de la presencia suiza en el festival que este año está dedicado a su país. Cinco compañías y una amplia exposi-

ción abierta en el Palacio de Aranzburu completan una embajada artística helvética que se ha sorprendido de su propio potencial al ver lo que han reunido en Tolosa.

«Todos los profesionales suizos estábamos muy interesados en la experiencia de venir al Titirijai porque no habíamos podido mostrar nuestro trabajo de una manera tan amplia», explica Rolle, que también incide en señalar que «nunca se había montado en nuestro país una exposición como ésta, tanto es así que ya es seguro que la vamos a llevar a Suiza y, probablemente, a otros países. Al verla montada nos

ha llamado la atención a nosotros mismos ver todos los títeres juntos. En Suiza estaban desperdigados por pequeños museos y en colecciones de arte y muchos, yo entre ellos, sólo los habíamos visto en fotografías. Seguro de que cuando la puedan contemplar los suizos se van a sorprender. Y no sólo el público, también los profesionales».

**Artistas desperdigados**

En Suiza, donde hay unas setenta compañías de títeres profesionales, se celebran muchos festivales, pero buena parte de las obras programadas son extranjeras. «Hay pro-



Pierre Alain Rolle. :: KLINSK

blemas para que los programadores ofrezcan títeres, para una ciudad es más fácil financiar un festival que promover algo fijo». Desde el punto de vista artístico los títeres en Suiza «estamos un poco

desperdigados y es difícil ver los trabajos de los otros si no estás en su circuito, es un problema más dentro de uno mayor: la identidad de la marioneta no es importante». Al contrario de lo que ocurre allí con la danza, «si dices que eres bailarín es algo fuerte ya de entrada y entre ellos se apoyan mucho, lo que no pasa entre nosotros los títeres».

Del Topic dice con admiración que «además de bonito es bueno». Destaca sus medios «y las ideas de arquitectura y sobre los títeres». Es un lugar «que todos quisiéramos tener en nuestros países y muy necesario para la profesión de cualquier parte». La importancia total del Topic recalca que «no se podrá valorar del todo hasta dentro de treinta años, para los profesionales de hoy es algo importante lo que sucede en esta ciudad, pero lo será aún más para los del futuro y la historia de la profesión».